





SECCION AMENA.

MUTADI EDO ISITZAK.





Askantzak urrengo lumero edo liburuchoan.

ASMATZEN DUBENENTZAT.

Aizak, aspaldiyak i
 ¿nun bizi aiz Joakiñ?
 —¿Oraindik ez aldakik?
 ni osabarekiñ.
 —Bai, bai ¿bañan osaba?
 —Osaba nerekiañ.
 —Ori dek. ¿Eta biyak?
 —Biyak alkarrekiñ.

MARCELINO SOROA.

MUTADI EDO ISITZEN ASKANTZAK.

Zestoan jaio zan Juan
Tolosan aziya,
eskolan ta lanean
Alzon ikasiya,
Deban andria artu,
Zumayan biziya,
orain korritzen dabil
Europa guziya.



Ama Birjiñaz zezenak
Ondarrabiyan
barrerak iru errialian
balkoyak
pezeta biyan.

